



MEMORIA
2019
TXOSTENA



Lantegi Batuak

MEMORIA
2019
TXOSTENA



Lantegi Batuak

Adimen-desgaitasuna duten **pertsonentzako Bizkaian lan aukerak** sortzen dituen irabazi asmorik gabeko erakundea gara. Pertsona horien inklusioa, garapena eta bizi-kalitatea ditugu helburu. Gure bezeroen beharrianak desgaitasuna duten pertsonentzako **aukera** bihurtzen ditugu.

Lurralde mailako garapenean inplikatzeko gara: eskualde guztietan zentro eta zerbitzuak ditugu, bezero eta pertsonenganako hurbiltasuna bermatzen dugu, eta erakunde publikoekin, gizarte erakundeekin eta enpresekin kolaboratzen dugu.

HELBURU SOZIALA DUEN ENPRESA JARDUERA

73,7 M €-ko

fakturazioa. Diru-sarreraren % 80 salmentetatik dator.

+240


bezero berri gehiago
Industria eta Zerbitzu arloan.

35,8 M €-ko

balio erantsia. (%33 zerbitzuetan eta % 67 industrialean).

8/10

Gure bezeroen asebetetze-maila.



INDUSTRIALA: % 67 24 M €-KO BE
ZERBITZUAK: % 33 11,8 M €-KO BE

33,4%	Ekipamendu elektrikoa
14,6%	Kontsumo handia
11,3%	Automobilgintza
3,6%	Berriztagarriak (eolikoa/fotoboltaikoa)
2,3%	Garraioa (elektromugikortasuna)
2%	Smart Home
18,8%	Garbiketa
5,6%	Lorezaintza
3%	Dokumentuen kudeaketa
2%	Ostalaritza eta Turismoa
3,4%	Bestelako zerbitzuak

“GURE BEZEROEN
PROIEKTUEKIN BAT
EGITEN DUGU, ZERBITZU
EGOKITUEN ETA
INDUSTRIA
TEKNOLOGIAREN
ESTERNALIZAZIOAREN
BIDEZ”



“DESGAITASUNA DUTEN
PERTSONEI
LANERATZE-IBILBIDE
INDIBIDUALIZATUA
ESKANTZEN DIEGU”

127

Lanpostu berri **desgaitasuna duten pertsonentzat**; horietatik, % 30a enpresa arruntetan.

3.188

Pertsona Lantegi Batuak-en (1.133 emakume eta 2.055 gizon).
% **83k desgaitasunen bat dute** (860 emakume eta 1.753 gizon).

Desgaitasuna duten pertsonen

688

orientazio eskaera.
254 emakume eta 434 gizon.

8.461

Ordu **orientazio profesionalera** bideratuak (% 5,7 gehiago).

Adimen-desgaitasuna duten

512 EMAKUME

975 GIZON

Desgaitasuna duten 615 pertsona hautatu ditugu **Enplegu Zentro Bereziatarako**, eta desgaitasuna duten 92 pertsona hasi dira **Zerbitzu Okupazionalen**, lanpostuak betetzeko.

GARAPEN SOZIOLABORALA

Adimen-desgaitasuna edo gaixotasun mentala duten

1.774

pertsonak (% 100) izan dituzte laguntza-planak, garapenerako helburuak eta lanpostuetarako egokitzapen indibidualizatuak.

161

Pertsonak lortu dute **garapen profesionala**.

55 pertsona hasi dira enplegu arruntean (26 emakume / 29 gizon)



33 pertsonak lortu zuten aurrerapena Enplegu Zentro Berezian (10 emakume / 23 gizon)



22 pertsona pasa dira Okupazionaletik Enplegura (9 emakume / 13 gizon)



75 mailaz igo dira Zerbitzu Okupazionallean (25 emakume / 50 gizon)



LAGUNDUTAKO ENPLEGUA

438

Bisita enpresetara (prospekzioa, legea betetzeko eta kontratazioak egiteko aholkularitza)

Desgaitasuna duten

55

pertsona gehiago sartu dira enpresa arruntetan.
Horietatik 31 Lagundutako Enplegu programaren bidez.

Lagundutako enplegua



GUZTIRA: 31

Enplegu arrunterako beste laneratze batzuk



GUZTIRA: 24



Gizonak



Emakumeak

PRESTAKUNTZA

57.800

Prestakuntza ordu (% 18 gehiago).


179

Prestakuntza ekintza (% 11 gehiago).
169 etengabeko prestakuntzan eta
5 Prestakuntza Okupazionalako
ekintzetan.

Langabezia dauden eta desgaitasuna duten

94

pertsonak profesionaltasun ziurtagiriei
lotutako prestakuntza ekintzetan parte
hartu dute, **Lan Eskolaren** bidez.



Lantegi Batuak

**“PRESTAKUNTZA
PERTSONEN LANERATZE
ETA GIZARTERATZEAREN
OINARRIA DA”**

LAN ESKOLA

ZER DA?

Desgaitasuna duen pertsonen enplegagarritasunera bideratutako prestakuntza programa da. 2016an sortu zen. **Lan Eskolaren** bidez, prestakuntza egiaztatua burutzen da **Lantegi Batuak**-en edo erakunde kolaboratzaileen zentroetan. Prestakuntza teoriko, profesional eta zeharkakoaz gain, praktika tutorizatuak eta bide-laguntza pertsonalizatua ematen dira.

%58

kontratazioak **Lantegi Batuak**en eta enpresa arruntetan.

9

Prestakuntza jarduera (Profesionaltasun ziurtagiriak edo prestakuntza espezialitateak).

ENPLEGAGARRITASUN ARLOKO PRESTAKUNTZA

Profesionaltasun ziurtagiriak / prestakuntza espezialitatea / prestakuntza duala / BESTELAKOAK)

AITORTZA PROFESIONALA

Esperientziaren akreditazioa

LANTEGI BATUAK-EKO PRESTATZAILEAK BESTE ZENTRO BATZUEKIN ELKARLANEAN

ENPLEGU PUBLIKOA SUSTATZEKO AKADEMIA EGOKITUA



BALIO SOZIAL INTEGRATUA

“HEMEN SORTU ETA GIZARTE OSOARENTZAKO ONURAGARRIA DEN BALIOA”

207M € Lantegi Batuak sortutako Gizarte Bali-balio Integratua

Lantegi Batuak gizarte-balio integratuaren eragin zuzena:

120M€

Sare industrialean,
lehiakortasunaren
hobekuntza eta
erosketetan izandako
eraginagatik.

100M€

Gizartean, balio erantsian,
soldata eta zergetan.

47M€

Osasun prestazioetan,
enpleguaren
sustapenean,
prestakuntza, eta abar.

49M€

Desgaitasuna duten
pertsonek familiaren
gan, zainketa, gastu
mediko eta beste-
lakoek aurrezki gisa.

KOMUNITATEAN PARTE HARTZEA

509

Parte-hartze ekintza komunitatean: adimen-desgaitasuna duten pertsonak, bereziki Zerbitzu Okupazionalako erabiltzaileak, hainbat jardueratan parte hartu zuten komunitatean, hala nola kultur, kirol, prestakuntza eta lankidetzaren ekintzetan, ekintza pedagogikoetan eta bestelakoetan.

“GURE BALIO SOZIAL
INTEGRATUAK EKONOMIA
TRADIZIONALEAN
EZKUTUAN DAUDEN
BALIO HORIEK
KUANTIFIKATZEN DITU”

BISITAK ETA TOPAKETAK

20+

Gure **Lagundutako Enpleguaren eredua, Lan Eskola eta Kontabilitate Sozialaren** eredua aurkezteko jardunaldi eta ekitaldiak. Kudeaketa aurreratuaren eta Berrikuntza sozialaren arloko ereduak azaltzeko ere deitu digute hainbat aldiz.

200+

Hainbat herrialdetako 20 erakunde baino gehiagoren bisitak.

ARLO AKADEMIKOAREKIN DAUKAGUN KONPROMISOA

- Desgaitasuna duten pertsonentzako IX. Beka deialdia, Deustuko Unibertsitatea, UPV/EHU, UNIR eta Mondragon Unibertsitatearekin lankidetzan.
- Ikaslan-ekin egindako akordioa (Lanbide Prestakuntzako Zentro Publikoen Sarea), pertsonen prestakuntza eta enplegarritasuna sustatzeko.



LANTEGI BATUAK MUGARRIAK 2019



ERREKONozIMENDUAK



Kudeaketa Aurreratuaren arloko
URREZKO A.

GIZARTE-BALIO INTEGRATUA

Hamar urte daramatzagu gure kontabilitate sozialerako eredua **Bizkaiko** lurraldearekin partekatzen. Topaketa bat eta sentsibilizazio kanpaina bat egin ditugu hori ospatzeko.

GAITASUN TEKNOLOGIKO BERRIAK

Sestao Berri inauguratu dugu, elektronikan espezializatutako zentro berria; horren barruan, **BBK Sestao Elektronika** dago, sektore horretako oinarritzko lanbide heziketara bideratutako eremua.

AZPIKONTRATAZIOA

+Industry (fabrikaziorako ekipo eta prozesuen nazioarteko azoka) azokaren barruan kokatzen den **19 Azpikontratazioa** ekitaldira bertaratu gara, industria sektorerako ditugun gaitasun teknologiak aurkeztera.

**“2019A AURRERAPEN
HANDIKO URTEA IZAN
ZEN DESGAITASUNA
DUTEN PERTSONENTZAT,
ETA GURE KUDEAKETA
EREDUAK URREZKO A
AITORTZA JASO ZUEN”**

KUDEAKETA

Industria sektoreko eraldaketak aurrera egin du, etengabeko hobekuntzako **Kaizen** ereduan oinarritua. **Bizkaiko** gure zentro guztiei eragiten die.

ZERBITZU OKUPAZIONALA EREMU IREKIETAN

Eremu irekietan zerbitzu okupazionalak ematen hasi gara, hala nola **Amorebietako Restopean**. Modalitate horren bidez, erabiltzaileen beharizanei erantzuna ematen zaie industria eremuetatik kanpo ere, eremu ireki eta inklusiboagoetan.

EGOKIPLAN


Desgaitasuna duten pertsonen zahartzerako eredu **okupazionalaren aurrerapena**. 60 pertsonarentzako lekua dago, eta sei zentrotan zahartze arlorako laguntza handiagoa.

ESPERIENTZIA PROFESIONALAREN ERREKONozIMENDUA

Adimen-desgaitasuna duten 79 pertsonak lortu dute Lorezaintza eta Garbiketa arloko **Ziurtagiri Profesionala**, esperientzia profesionalaren akreditazioaren bidez.

BERDINTASUNA

Emakunde, Emakumearen Euskal Institutuaren errekonozimendua berriztatu dugu. Martxoaren 8an, **Emakumeen Nazioarteko Egunean**, aldarrikapenekin bat egin genuen, kanpaina honen bidez: “Zer gertatuko litzateke emakumeok egongo ez bagina?” (**¿Qué pasaría si faltáramos las mujeres?**)



Gorabidek sustatutako erakundea gara, **Adimen-desgaitasuna** duten pertsonen aldeko **Bizkaiko** elkarteak, eta honakoei laguntzen diegu:

